

(H)iri eta haren hitz senideen lotura gotorlekuekin

Jakes Casaubon
Hidrobiologoa

Egun *hiri* hitza arrunki biztanle-dentsitate handiko gune eraiki gisa definitzen bada ere, termino horrek bizileku molde desberdinak adieraz ditzake, hiri-aglomeraziotik baserri-eremu bakartietaraino.

Lan honetan lehiatzen gara azpimarratzera beste garai batean babesleku eta gotorleku adiera zukeela.

Horretarako, Euskal Herriko geografian hiri hitzaz osatutako leku andana bat korrituz, aise da ikusten aztertu diren guztiak Brontze Arotik —gutxienez XII.-XIV. mendeetaraino— gotorlekuak izan zirela.

GAKO-HITZAK: Gotorleku · Hiri · Gaztelu · Toponimia · Etimologia.

The link between (h)iri (and related words) and fortified places

If the word *hiri* is currently defined as a built place with a high density of population, this term also may name different living zones, from urban agglomerations to isolated countryside areas. In this contribution, we propose the idea that a long time ago it could also refer to a place for protection or a fortified place.

The numerous visits we have done in the Basque Country to places whose name includes *hiri*, easily show that all these places have been fortified places, from the bronze ages to at least the 12th – 14th centuries.

KEY WORDS: Fortified places · *Hiri* · Stronghold · Toponymy · Etymology.

Jasotze-data: 2011-10-25. *Onartze-data:* 2013-05-16.

Sarrera*

2002an *MUNIBE* zientzi aldizkarian argitaratu artikuluan (Casaubon, 2002) lehiatu ginen irakurlea ohartaraztera *hiri*¹ eta fonetikoki zein morfologikoki hitz horretatik hurbil dauden zenbait hitzek, jatorrian, lotura zenbait izan dezaketela Historiaurreko, erromatarren garaiko eta Goi Erdi Aroko gotorleku batzuekin.

Lan honen bidez, aurkezten ditugu gure ibilbide eta irakurketetan zehar 2002az geroztik egin aurkikuntzak. Kontuan hartu behar da, halere, Burdin Aro edo erromatarren garaiko (*h*)*iri* kutsuko izenak Akitania eta Iberia osoan zehar aurkitu direla, adibidez: *Elimberris* (Auch), *Iliberis* (Elne), *Gracuris* (Alfaro), *Iria Flavia* (Galizia), *Iliberi* edo *Illiberis* (Granadatik gertu, oraingo Alarife) eta abar (Plinio, Estrabon, Ptolomeoren esanetatik in Larrañaga, 1996).

Ikerketaren arrazoia

Nire ama zenaren lehen abizena *Iribarne* izanez eta jakinez haren arbasoak nekazariak izan zirela mendez mendez, gizaldiz gizaldi, gure iritziz bederen, ez nuen adierazgarri sentitzen *Iribarne* familiak bere jatorria hiri baten barrenean zuenik.

Nire hausnarketak ekarri ninduen subjektiboki pentsatzera, segurtasun falta handian bizi zirelakoan gure arbasoak, nekazariak barne, auzo ttiki batzuetan elkarretaraturik biziko zirela, lur-pezoien gainean finkatu hesola tinkoen babesean. Gainera, oharturik nengoen *hiri* izeneko egoitza gabeko lekuak bazeudela.

Elementu pizgarria izan zen, lehen aldiz, IGN 1345 OT mapan aurkitu nuelarik *Hiriguibel* (sic) toponimoa, Burdin Aroko gotorleku baten atzealdean, Ursumendin (Hazparne, Kanbo).

Hasian hasi, ikerketak bideratu nituen nire ibilbideetan eta irakurketetan zehar. Ikerketa horien edukia argitaratzera nator idazki honen bidez. Aitortuz ere, emaitza batzuk doi bat subjektiboak izan daitezkeela.

Ikerketaren helburua

Hiri hitzak etxe eta eraikuntza-egitura aski handien eremua adierazten badu ere, gaur egun euskal lur-esparruan *hiri* eta fonetikoki haren irudiko leku-izenek erakusten dizkigute etimologia, esanahi eta egitura desberdineko herriak, bizkorrenetik xumeenerat, auzo, biztanle eta egoitza murriztenak, bakar etxe baztertuenak, mendi, mendixka, muino eta tontor etxerik gabekoak.

1875ean A. Luchaire hizkuntzalariak argitaratu artikuluan honela zehazten ditu *iri* hitzaren adierazpen bereko terminoak: *iri, hiri, uri, ori, ur, or, ili, eli, uli, ulli, il, li*. Atrebitzen naiz zerrenda hori luzatzera *ulu, ullu* hitzekin.

* Esker ona erakutsi nahi diet Jokin Apalategi, Pascale Dehuire, Jasone Salaberria, Aña Mari Casaubon eta Lucien Etxezaharretari eman dizkidaten laguntza eta aholkuengatik.

1. Harluxet Hiztegia: **iz**. 1. Jende ugari bizitzeko etxe- eta eraikin-multzo egituratua, jarduera-mota desberdinetan, bereziki bigarren eta hirugarren sektorean, diharduen biztanleria duena.

Ez gara sartuko hizkuntzalarien eremuan. *Hiri/iri*: lehenari *hesi* edo *hertsiaren* adiera emanez, eta, bigarrenari, *hurbiltasun*, *inguru* adiera emanez denboran zein espazioan. Lan honetarako, *hiri* eta Luchoarek (1875) haren aldagaitzat ematen dituenak, *eli, iri, ili, li, idi, uri, uli, ulli* eta *ori* izanen ditugu gogoan.

Iruditzen zaigu *hiri* eta haren aldagaitzat har daitekeen jatorrizko adierazpena urruti daudela hiztegi eta entziklopedietan aurkitzen den etimologiatik. Horretarako, (*h*)*iri* terminoez osaturiko toponimoen kokalekuak aztertuko ditugu. Antzinaroan beste adiera bat bazukeela erakusteko.

Gure lehia litzateke hizkuntzalari eta arkeologoei gure oharpenak helaraztea. Eta behar den zuhurtziarekin, (*h*)*iri*-ren jatorrizko adierazpena edo etimologia *gotorleku* izan litekeela, helburu defentsiboa eta estrategikoa garrantzitsuagoa izan baitzitekeen «bizilekua» baino, haren egokitasuna defentsaren ahalmenaren arabera izanen baitzen².

Euskal Herriko gotorleku zaharrak

Euskal Herriko mendi-bizkarretan zehar, egitura desberdineko gotorlekuen aztarnak aurkitzen dira, estrategikoki tontor egokienetan finkatuak eta ibar-ertzen bi aldeetan, itxuraz, Brontze Arotik Burdin Aro bururaino eraikiak.

Egitura zaharrenekoak lur-pezoiez osatuak dauzkagu, batzuk, harrizko horma batzuk jasanez, mailaka sailkatuak aldapan gora gailurreraino; beste batzuk, lubakituak.

Francis Gaudeul arkeologoari zor diogu Iparraldekoak ezagutzea eta, azalez bederen, haien deskribapena, zeren indusketarik ez baita egin oraindik, segurtatzen ahal digunik haien datazioa eta funtzioa. Iparraldeko gotorlekuetan indusketarik egin ez bada ere, emaitza susmagarri batzuk badauzkagu halere. Adibidez, *Gazteluzahar* (Larزابale, Izura, Landibarre, NB³) gotorleku erraldoiaren magalean bide berri bat urratu zuten gailurreraino, eltze puska asko azaleratu ziren, egitura herrikoa zeukatenak, esku hutsez landuak (Tobie, 1971) eta garai bertukoak, K.a. II. mendekoak, elusatar edo tabeliar txanponak (De Buffières, oraino publikatzekoa).

Hegoaldean berdin, garai bereko gotorleku mordoa dago, zeinak, J.M. Barandiaran, Aranzadi eta Egiuren talde ospetsuaren ondotik, arkeologo askok ezagutarazi dizkiguten. Iparraldean ez bezala, gotorleku batzuk indusketetan emanik daude, hala nola Intxur, Aranzadiko X. Peñalver-en zuzendaritzapean. Brontze Arotik Burdin Aro bururainoko aztarna argitaratuek jasaten dituzte, lur-pezoien barruan, harresi batzuk, bai eta eltze puska, nekazaritzako eta garai bereko bizimoduko lanabes eta abere-hezur asko ere. Ohargarriena hauxe da, egoitza batzuen aztarnak harresiei datxezkiela daudela (Peñalver eta Uribarri, 2002). Aztarna argitaratu horiek aditzera ematen dute gotorleku horren barruan leinu baten bizileku iraunkorra zegoela.

2. Lakarraren arabera (2010: 226-227), Erdi Aroko eta ondoko euskal toponimian eta onomastikan *hiri/uri*-k egungo *hiri* edo *burgu*-k baino xumeagoa izan behar zuen. Eta *-iri* postposizioa 'itxitura' jatorri horretatik uler daiteke.

3. Euskal herrialdeen izenen laburdurak honela idatziko ditugu: Zuberoa, Z; Nafarroa Beherea, NB; Lapurdi, L; Nafarroa Garaia, N; Araba, A; Bizkaia, B, eta Gipuzkoa, G.

Jada esan dugunez, indusketarik ez da egin, zoritxarrez, Iparraldeko gotorleku zaharrenetan, eta oso guti Nafarroa Garaiko iparraldean (Sagredo, 2011: 5-6). Antzinarotik Goi Erdi Arorainoko baskoien historiaren parte handi bat ezkutaturik dago euskal Pirinioetako mendi-gainetako gotorlekuetan.

Zoritxarrez, ondare ezin preziatuzkoa galtzear daukagu, lapurren esku dagoelako, Brontze Aroko, Burdin Aroko, erromatarren garaiko eta Goi Erdi Aroko monetak harrapatuak direlako metal-detektagailuen bitartez, merkatu beltzean saltzeko, zeramika, arma eta lanabes desterratuak botaiak.

Paradoxikoki, kanpotik edo atzerritik, *Ager Vasconum* aldera etorritako zelta eta gainerako inbaditzaileen historia hobeto ezagutzen dugu, *Saltus Vasconum* lurraldeko gure arbaso baskoiena baino.



1. irudia. Goi Biduze esparruko gotorlekuen inguruko (h)iri eta haren hitz senideen toponimia.

Gotorlekuen kokagunea

Antzinako gotorlekuak, ezagutzen ditugunak bederen, lau eremu motatan atzematen dira:

- Mendi-gainean kokatuak Protohistoria garaikoak.
- Ibar zabalen erdian erromatarren aitzineko *oppidak*.
- Ebro aldeko lautadako tontorretan Posthallstatt garaikoak.
- Erromatar Inperio bukaeratik Goi Erdi Aro bukaerarainoko gazteluak.

1. Protohistoria garaiko Iparraldeko mendietako gotorlekuak

Hirurogeitik gora errolatu ditu F. Gaudeul ikertzaileak Iparraldean, egituraz doi bat desberdinak.

Lehen oharpena hauxe da: haien kontzentrazio handiena Uhaitza (Z) eta, bereziki, Goi Biduze (NB) aldeko ibarretan dagoela.

Akitanian behera, mendez mende, uhinez uhin, Europa ipar-ekialdetik etorritako indoeuropar leinu eta gudaroste inbaditzaileen igarobide naturalak izan ziren Goi Biduze eta haren auzo-ibarrek. Bidean zehar, Brontze eta Burdin Aroko gotorlekuak aurkitzen ditugu *Saltus Vasconum* esparruaren zaindaria, Ebro isuriraino.

Toponimiara itzuliz, ohartzen gara gotorleku horien ingurunean (*h*)*iri* hitzaren arrastoak dauzkagula, gotorlekuan berean edo bertako lepo eta baserri batzuetan (1. ird.).

Ez al zuen denboraren higadurak eta, seguruago, erromatarren hizkuntza latin-erromaniko menderatzaileak ekarri Protohistoria garaiko mintzaira batek sorrarazi (*h*)*iri* hitza emeki-emeki *castellum* > *gaztelu*-z ordaintzea? Protoeuskara, zeltiberiera ala iberiera, (*h*)*iri*-ren erroak zein lurretan sortu eta sakondu ziren, euskal hizkuntzalarien esparruan ez gaitezke sar. Halere, Mitxelena, Gorrotxategi, bereziki Lakarra, eta beste euskalari batzuen azterketek gogoeta asko pitzarazten dizkigute.

Zer definizio zeukan toponimo horrek garai haietako biztanleentzat, gotorleku ala bizileku?

Beti (*h*)*iri*-ri dagokionez, jatorrizko hizkuntzaren begiratzeko lehia kausitzen dugu gotorlekuen toponimo batzuetan, bi hizkuntzak, euskara eta erromanikoa elkarri juntaturik aurkitzen ditugularik molde tautologiko batean. Adibidez: *Gaztela(i)ri* (Etxarri, Z), *Gaztelai(ri)a* (Sohüta, Z), *Gaztela(i)ria* (Zalgize, Z), *Gaztela(i)riko botxia* (Lakarra, Z). Nafarroa Beherean eta, bereziki zuberotarren ahoskeran, *i* eta *n* fonemen itzaltzea edo sinkopa egitea ohitura da aspaldidanik.


Goi Biduze eta auzo-ibarren sarreran zenbatzen ditugu, dozena bat kilometrotan zehar, hamalau gotorleku (1. ird.).

Ez zaigu sinesgarri, gehientsuak bederen, bizileku iraunkorrak izan zirenik. Alde batetik, jasan-toki guztiz eskasak dauzkatelako, bai leinu, bai abereak babesteko, malda bortitzak eta gailurreko zabaldua oso xumeak izanez. Irudiei begirada bat ematea aski da konbentzitzeko (2. ird., 3. ird., 1. arg.).

Hiru edo lau gotorlekuk, halere, baldintza osoak zeuzkaten leinu baten bizileku iraunkorra izateko: iparraldetik hegorantz, Kurku (Behauze, NB), Elhina (Armen-daritze, NB), Hoxa (Iholdi, NB) eta Gazteluzaharre (Larزابale, Izura, Landibarre, NB). Azken hori Euskal Herri osoko gotorleku zabalena daukagu (14 ha), Oztibarreko lautada gizona oinetan daukalarik, oso egokia hazkuntzarako eta nekazaritzarako, defentsa-egitura azkarrez osatua, eguzki aldeko malda ezia oso egokia bizilekutzat. Gure iritziz, Gazteluzaharre litzateke Iparraldeko «Intxur».



2. irudia. Mehaltzu - Irimendi - Jutsi - Donaixti NB - Pagola Z (F. Gaudeul).



3. irudia. Ullumendi - Urdiñarbe - Garendaine Z (F. Gaudeul).



1. argazkia. Ullumendi (F. Gaudeul).

Brontze Arotik Goi Erdi Aro bururainoko gotorleku horien alderako lehen oharpena da haien inguruan aurkitzen dugula (*h*)*iri* eta haren hitz senideez osatu toponimo mordoa.

Ohargarri da ezen (*h*)*iri* eta haren hitz senideak aurkitzen ditugula toponimian, Antzinarotik gaur arte, bai Iparraldean, bai Hegoaldeko gotorlekuetan, populu beraren seinale.

2. Ibar zabalen erdian erromatarren aitzineko oppidak

Oppidum, *oppida* daukagu, definizioz, erromatarren garai aitzineko populu edo leinu baten babesleku gotortua, egituraz, Larousse (1982) entziklopediaren hitzetan, zelden defentsa-lekuen antzekoa.

Iru aurritziaz osatu *oppidak*, Iruñea (N), Irunberri (Zangoza, N), Iruña Oka (A) eta Irun (G) ziren, baskoien eta haien populu haurrideen erromatarren garai aitzineko herri nagusiak, gotorlekuen barrenean babestuak, Arga, Irati, Zadorra, Bidasoa ibaien gainaldeko muinoetan kokatuak, estrategikoki toki egokienean, ibar zabalduen zaindari, nekazaritzako eta hazkuntzako lur aberatsez inguratuak.


Moncayoko Iruña Antzinarotik, erromatarren garaian zehar, Goi Erdi Aro bururaino, arrazoirik ez zitzaion falta izan baskoi, erromatar, barbaro edo musulmanei *oppidum*, kastro edo gazteluz toki hura zaintzeko. Lurpean metalak eta beste gai batzuk gordetzen zituelako eta nekazaritzako lur emankor zabalak, leku estrategiko garrantzi handikoa zen Baskonia, Ebro behearen eta Ordokiko lurraldeen arteko mugan. Garai haietan Moncayoko Iruñak zeukan mugari etnolinguistikoaren ikurra, hor daukagularik, oraindik, Erdi Aroko gaztelu erraldoi, larderiatsua (Narbaitz, 1975: 255-256).

Baskoi populuak bantzatu ondoren, erromatarrek *oppida* haiek egituraz birmoldatu zituzten eta *castrum* bilakarazi. Beste *oppida* asko bazegoen garai haietan, baina segurtasun falta handia zeukatelako deseginak izan ziren.

Iruña, *Iruñe*, *Irun* toponimoak Erdi Aroan dira aipatzen testuetan lehen aldiz, *Pompaleo*, *Beleia*, *Oiasso* direlarik agertzen autore klasikoen idazkietan (Narbaitz, *ibidem*). Ez al zituzten erromatarren garaiko idazleek, menperatzaileen mintzaira erabiliz, deliberatuki euskal leku-izenak baztertu eta konkistatzaileek eman izenez ordezkatu? Alderantziz, baskoiek zituzketen, mendez mendez, transmititu beren mintzairan jatorrizko leku-izenak. Historian murgilduz, etsenplu asko dauzkagu. Adibidez: *Ostabat*, Nafarroa Behereko hiri historikoa, Konpostelako Europako hiru bide nagusiak elkartzen ziren lekua, XI. mendeko idazleek aipatzen zuten, *Izura*, jatorrizko euskal izena, nehon ez dagoelarik agertzen.

3. Posthallstatt garaiko lautadetako gotorlekuak

Eboren bi aldeetako lautadetan aurkitzen ditugu Posthallstatt garaiko gotorleku batzuen aztarnak, K.a. VI.-IV. mendeetan zehar inbaditzaile zeltek eraikiak (Baroja, 1982: 51-52).



4. irudia. Ager Vasconum lurraldearen iparraldea.

Egoitza haiek tontor batzuetan finkatuta zauden, lurrezko eta harrizko pezoiez inguratuta, zeinetan lubakien arrastoak ere aurkitzen diren.

Toponimia aldetik ohar batzuk *Ager Vasconum* esparruan finkatuta zeuden herrixka haiei buruz: *Saltus Vasconum*-en mugatik gertu, *Ager Vasconum* lurraldearen iparraldean aurkitzen dugu Burdin Aroko herrixken izen mordo bat *iri*, *iru*, *ri*, *ria*, *li* aurrizki, atzizki edo hitzaren barneko elementuz osatuak (4. ird.)⁴ Etxauri, Iburiku (Urri), Lezkairu, Lizoain, Legaria. Mendebaldean ere, Araban aurkitzen ditugu zelta edo beste indoeuropar batzuen herrixka gotorrak: Biasteri (La Hoya), Olarizu (Gazteizko auzo bat).

Ohargarria da ere, toponimiari dagokienez, *Ager Vasconum* esparruan, Burdin Aroko herrixkek daukaten maiztasuna «gotorleku» adierazpen edo esanahiarekin:

- Euskara edo bederen latinetik euskaratu errokoak: Monte Muru (Lizoain), Muru Astrain (Santsol) Muruzabal (Murundigain), Tatur mendia (Oteitza), Dorre (Artaxoa). Erro zeltakoak, mapan agertzen ez direnak, *fortaleza* adiera duen *-dunon* atzizkidunak (Baroja, 1945: 222): Navardum (Sos del Rey-ren ekialdean), Berdun (Anso ibarraren sarreran).
- Latin > erromaniko > gaztelania errokoak: El Castellar (Xavier), El Castillar (Los Arcos), El Castillar (Mendabia), La Castellana (Viana), El Castillar (Lodosa), El Castillo (Castejon), La Torraza (Valtierra), El Castejon (Arguedas) eta El Castillar (Fontellas).

4. *Atlas de Navarra*, Caja de Ahorros de Navarra, 1977.

Denboretan urrunago murgilduz eta baskoien esparruan geratuz, *Graccuris*, *Graccus*-en uria «*Graccuris, antea Ilurcis nominabatur*» (Tito Livio, *Epitome XLI, In Narbaitz*: 122).

Calagurris-en etimologiaz, Julio Caro Barojaren oharpen eta iritzi hauek merezi lukete gogoeta bat:

«Calagurris» vale tanto como «Garagorri» = 'altura roja'. Aquí yo he de aceptar el punto de vista de Menéndez Pidal al rechazar la palabra «gorri» como componente, y pienso que es mejor para explicar el nombre recurrir a «uri (cuya «r» ya se ha visto que a veces se hace fuerte), o acaso a otra palabra. La «u» de «Calagurris» induce a separar el nombre de los que tuvieron una «Q» más o menos remota que se diptongó en «ue». Ya se ha insinuado, sin embargo, que es problemático que tal diptongación tenga el significado que se pretendió en un principio, ya que al estudiarla se han unido topónimos de vario origen, unos romance, otros de origen vasco posible. De todas suertes, el problema que plantea merece atención fuerte, y sobre él y otros análogos quiero hacer unas cuantas observaciones ahora.

...La idea de que ésta es una palabra céltica que defendía Lizop, ha sido rechazada por Vendryes. Dauzat creyó poder establecer que significaba fortaleza, en lo que estaba de acuerdo con Schuchardt, que ya enunció esta suposición en 1913, indicando un paralelo hamítico. Pero en lo último se apartaba el autor francés del austríaco, pues en «cala» veía una palabra ligur (Baroja, 1945: 191-192).

Hizkuntzalaritzan aditua ez izanagatik, tentazio handia pitzarazten digu hone-lako euskal itzulpenak: *Calagurris* > *Uri* gotorlekua? Kasu bertsua aurkituko dugu urrunago 4.1.2. puntuan Zuberoako *Gaztela(i)ri*, *Gaztala(i)ri* eta Antzinaroko beste gotorleku batzuekin.

Ohargarria da (*h*)*iri* eta beste euskal toponimoen sekuentziaren kontzentrazioa handiagoa dela zenbat eta *Saltus Vasconum*-etik hurbilago egon, itxuraz, baskoien mintzairaren (protoeuskara) eraginkortasunaren seinale, eta lautadaren erditik hegorantz desagertuz doazela, mintzaira latin-erromanikoek gainturik.

4. Goi Erdi Aroko gazteluak

Gehientsuak erregeen alkaide eta jauntxoen egoitza gotortuak dira, batzuk lubakiz inguratuak, harri pikatuz eraikiak, asko, harresi-lerro batez inguratuak, X.-XI. mendeetatik Goi Erdi Aro bururainokoak.

Barbaroen garaitik, ustez bederen, X. menderainoko gotorleku batzuen aztarnak deskubritu ditu Iñaki Sagredok azken hamarkada honetan Nafarroa Garaiko ekialdean (Sagredo, 2011: 6-9). Momentuz horien datazioa eta iragana ez daiteke aurreratu, V.-X. mendeen arteko historia ilunean dauzkagulako oraindik.

Mendeetan zehar, egoitza gotortu haien eraginkortasuna eta jabeen menpekotasuna, bai eta aberastasuna ere ahulduz zihozenez, gazteluak hustu ziren eta jauntxoak dorretxe eta palazioetan finkatu.

Halere, izan gaztelu, dorretxe edo palazio, (*h*)*iri* eta haren hitz senideen izenez deiturik aurkitzen dugu mordoxka bat oraindik.

XVI.-XVII.-XVIII. mendeetako egoitza laukitu batzuk atzematen dira ere, *Irun*, *Irunea* deituak dorretxe izanak itxuraz.

Gotorlekuak

Gotorlekuak *iri*, *iru*, *uli*, *ullu*, *eli*, *il*, *li* eta *uri* osagaien araberrako sei taldetan sailkatuko ditugu, Antzinaroa, Goi Erdi Aroa eta Erdi Aroa ere kontuan izanik.

1. *Iri* osagaiaz eraikitako gotorlekuen izenak

1.1. *Iri*- aurrezkiak

a) Antzinaroko gotorlekuak

Irigain (Usurbil, G)

Hona, leku horretan egin berri diren indusketen M. Ceberio Rodriguez-en (2010) txostenaren laburpena:

Artikulu honen bitartez, Irigain aztarnategia (Usurbil, Gipuzkoa) ezagutzera eman nahi da; Oria ibaiaren beheko zatiko Antzinaroko populazioari buruzko lehenengo testigantzak aurkitu dira bertan. Lan honetan zonalde horretako populazioa nolakoa izan zitekeen proposatzen da (243.-259. or.).

Zoritzarrez, leku horretako aztarnak baso-birlandaketa obrek guti edo asko desagerrarazi dituzte. Indusketek azaleratu dituzte, halere, Antzinaro eta erromatarren garaiko zeramika, eltze puska eta lanabesak erakusten dituztenak.

Ikusiz *Irigain* inbasio-leku arriskutsuenetarik batean zegoela, bai itsasotik, bai ibaitik, are gehiago lur bidez, Zarautz Getariako bide gainean zegoelako, Irian zehar, ez da sinesgarria gotorleku babeslerik gabe zegoela.

Leku horretatik gertu dagoen *Iria*-n indusketarik egin ote da? Ohargarri bezain gogoetagarri zaigu «*iri*» eta «*iru*» toponimoen maiztasuna Oria ibaiaren zati guztiz estrategiko horren ingurumenean: Irisasi, Irigain, Iria, Ilunbe, Irurita (Irurubietan), azken hori palazio-etxe gotortua Zubietako ibiaren zaindari, orainokoa, Iruritz salbu, «*ciudad*» ala «*vilae*» aztarnarik gabekoa.

Ursuiako gotorlekua

Ursumendin (670 m), Hazparne-Kanbo (L), gailurrean kokatua dago lurrezko gotorlekua, mailaka osatua. Ipar-ekialdeko lur-hesiaren kanpoaldeari deritzo *Irigibeleta*. Toponimo hori darabilte oraindik bertako herritarrek. *Hirigibel* grafiaz ekarria da IGN mapan (Cambo Hasparren, 1/25000 n°1345 OT). Hego-mendebaleko magalean (362 m) defentsa-leku baten pezoiz-aztarnak ezagun daude oraindik, eta bertako iturria *Iriberr* izenez ezaguna da (Gaudeul, 1972a).

Mehaltzu-Irimendi

Jutsi, Donaixti (NB), Pagola (Z) herriek mugatzen dute gotorlekua. Ekialdeko oinetan daukan lepoakari deritzo *Idiondoa* (*idi = iri*). IGN mapan (1445 Ouest Saint Palais) hegoaldean dagoen lepoari deritzo *Col d'Iregui* (Gaudeul, 1973d).

Munibe aldizkariaren 54. zenbakian (Casaubon, 2002) *Iriegi* izango zela aurreratu egin nuen, *Iregi* «*iratze hegi*» baztertuz, lekua otetsu dagoelako eta gotorlekuaren magalean zegoelako. 2002az geroztik egin toponimia-ikerketak erakutsi digu donaxtiar zaharrenek *Irimendi* ahoskatzen eta izendatzen zutela gotorlekua (Duvert eta Aguegaray, 1988: 109) (1. ird.).

Urkulu, Iriburieta, dorre trofeo soil bat ala gotorleku ere?

Urkulu mendiak —1.419 m, Orbaizeta (N)— izena zor dio gailurrean kokatutako harri landuzko dorreari. Luzaro enigmatiko geratu den eraikuntzaren sekretua Jean Luc Tobie ikertzaile erromanistak zulatu zuen erromatar trofeo bat zegoela azalduz.

Urkuluren hego-mendebaleko magalean, Arnoztegiko lepotik gertu, *Iriburieta* toponimoa aurkitzen dugu. Aezkoako eta Garaziko mendi-lurren arteko partzuergo-dokumentuek (Aezkoa 1556-1559) aipagarri daukate *Iriburieta*, bai eta Frantzia eta Espainia arteko mugak finkatzen dituen Elizondoko itunak ere (1785-08-17).

*Iriburieta*ren etimologia edo esanahia, historialari askoren iritziz, datorkioke Garazi eta Aezkoako mendi-lurren mugan edo buruan dagoelako.

Behar den zuhertasunez ausartuko naiz beste interpretazio bat azaltzen.

Garaziko artzain-bide protohistorikoa Ebro alderantz, Iratiko ibarrean zehar, Urkulu mendiaren oinetatik zihoan, eta bidearen bi aldeetan aurkitzen ditugu Burdin Aroko megalito ugari (Blot, 1978). Erromatarrek ere bide beretik zetozen, Ponpeiorenen garaian Ibañetako bidea egin aurretik.

Ohargarri da ezen Leizar Atekatik harat, Orreagako bide-hegian megalitorik ez dagoela edo, bederen, oso guti. Alderantziz, zenbat eta gertuago Urkulutik, orduan eta gehiago dauzkagu, eta kontzentrazio ugariak mendiaren hegoaldeko oinetan dauzkagu, *Irupil* eta *Maotxeko* (Mairuetxe) (Urrutibéhéty, 1977) zabaldu-retan, Ebroko bidean zehar. Ordoki belartsu haietan bizi izango zen artzain-leinu handi bat Burdin Aroan.

Urkulu gailurra ikuspegi paregabea izanez, leku egokiena aukeratu zuten erromatarrek beren trofeoa finkatzeko eta, denbora berean bide zaharraren harat-honakoak zaintzeko.

Hargatik, ez da sinesgarria lekuko leinu baskoiek ez zutela *hiri* bat eraiki gune estrategiko horretan. Brontze Arotik hona, inbaditzailea, Akitanian zehar, bide zaharretik goiti zetorren, eta Urkuluren oinetatik igarotzea ezinbestekoa zeukan. Erromatar trofeoaren eraikuntzak ekarri zukeen, beharbada, gotorleku baskoien desagertzea.

Iriburieta «*gotorleku*» esanahia, historialarien hipotesiaren bestelako gehigarri gisa azaltzen dugu zuhertasunez.

II(h)arrimuno edo Iliharrimuno gotorlekua (Suhuskune, Landibarre, NB)

Harri beltza izenez ere ezaguna da. Lubaki erraldoi batez inguratua, Landibarreko harana, iparraldera, eta Irisarrikoa, hegoaldera, zaintzen zituen (Gaudeul, 1977a: 39).

Ihapizta Ahaizekoa

Ortzaize (NB) herriko Ahaize auzoko bi mendixken gailurrean (183 m - 172 m) kokatuak daude *Ihapizta* izeneko gotorlekuak (Gaudeul, *ibidem*).

J. B. Orpustan hizkuntzalari eta historialariaren iritziz, *iha* = *iria* zuberotarren eta baxenabartar batzuen ahoskeran (Orpustan, 2000).

b) *Goi Erdi Aroko gotorlekuak: mokorren gaineko gotorlekuak*

Idiondoa baserriaren gainaldeko mokorra (Ainhize-Monjolose, BN) edo Xerra

Baserriaren gainaldean pezoiak ezagun ziren ez hain aspaldi, *Xerra* izeneko larrean -*xerra* = *cerro*-, lur berria osatzeko makinek desagerraraziak. Auzoari Bastida deritzo.

Iriberriko mokorra (Ahatsa-Bazkazane, NB)

Iriberria XVIII. mendeko aitoren semeen egoitza daukagu (2. arg.).



2. argazkia. Iriberria (Ahatsa-Bazkazane).

Bertan, jatorrizko dorretxe desagertuaren mokorra osorik daukagu, 1330 aurrekoa, Nafarroako artxibo zaharrek salatzen digutenez. *Villeneuve* (Orpustan, 1974: 158) izenez ezagutua zen garai hartan baina, *Iriberrri*, euskal izena galdu gabe, mendeak iragan ditu gaur arte.



3. argazkia. Iriberriko mokorra (Ahatsa-Bazkazane).

c) Erdi Aroko gotorlekuak: Gazteluak - Dorretxeak

Gazteluak

Goi Erdi Aroko Irilaun (Bergara, G) gazteluaren aztarnak ezagun daude oraindik, Gaztelu izeneko muinoaren gailurrean, Elosuako San Andres santutegitik gertu. «*Por lo que da la idea, el terreno responde quizá al tipo de fuerte de Aizorrotz, Auza Gaztelu, Arkale y otros ; es decir, fortines de vigilancia y dominio de los collados, de un notable interés militar...*» (Peña Santiago, 1982: 106).

Dorretxeak

Goyeneche-ren erranetik, eraso bortitzen ondorioz edo mendeen higadura jasan dutelako, oso dorretxe eta gotorretxe guti geratzen zaigu, jatorrizko arkitekturarekin bederen (1979: 248). Historialari horren iritziz, itxuraz aldatu direnen artean, orain, oin karratuko etxe zabal eta goratasun handiko batzuk daude, dorrekasko motzak. Egituraz horma lodiak dauzkate eta defentsarako leiho hertsia bat edo beste mantendu dute.

Iriberry (Amikuze, NB)

Amenduze udalerriko auzo bat dugu, Goi Erdi Arokoa, (XIII.-XIV. mendekoa) 60 metroko goratasuneko muino baten gainean kokatua, Biduze ibaiari so dagoela (Baratchart, 1990: 19-10).

Lurrezko azpiegiturek salatzen dute antzinagoko gotorleku baten gainean eraikia zegoela eta, bere garaian, pezoiz gainean finkatu hesolez babestua zitekeela.

Irigoyen (Itoitz, N)

Longida udalerriko herrigunea da, berriki urperatua bere lau etxe, eliza eta hilarriekin. *Irigoi*en etxea, dorretxea zen, leku gorenean kokatua.

Irisarri (Irisarri, NB)

Nafarroa Behereko mendebaldeko udalerraren lehen aipamena XIV. mendekoa da.

XII. mendekotz gotorleku-egoitza bat finkaturik zegoen leku horretan, Santiagoko ospitale bat babesten zuena, Jerusalemeko Jondoni Juanetar zaldunek eraikia, sarrien erdian (Goyeneche, 1979: 610-611).

Irisarri (Igantzi, N)

Juan Luis Seisdedos-en hitzek, «*La casa está asentada sobre un viejo fuerte*», argi uzten dute gotorlekua izandakoa dela (Seisdedos Bouzada, 2000: 19) (4. arg.).



4. argazkia. Irisarri, Igantzi.

Iriberrri sekuentzia

J. Altadill (1917), J.J. Uranga (1983: 39) eta F. Idoate (1954-1966) historialariek bereziki, ezagutarazi dizkigute Nafarroako *Iriberrri* izeneko bizigune desagertuak, edo hustuak, gizadiaren oroimenetik itzaliak, gehientsuak gotorleku baten babespean eraikiak XI.-XII. mendeetan, Euskaldun erregeen erreinu-garaian, nortasun handiko gazteluzain edo alkaide leialen manupean emanak. *Iriberrri* haiek gune estrategikoetan finkatuak zeuden, denbora berean nekazaritzarako gai ziren larretarik gertu.

Gutxienez, 9 *Iriberrri* zehazten dizkigute. Adibidez, *Iriberrri de Atez*, non geratzen baitira oraino, Belaz de Medranotarren gotorlekuaren aztarnak, bai eta *Iriberrri de Orba*, *Iriberrri de Leoz* ere, non gaztelu zaharra zutik baitago oraino.

XVII.-XVIII. mendeetako *iri* eta haren hitz senideen izeneko baserri batzuk aurkitzen dira gotorleku zaharrenen ondoan:

Iribarnea baserria (Irisarri, NB)

Herriaren iparraldeko *Gaztelu-zaharre* izeneko gotorlekuaren pezoien barrenean dago (Gau-deul, 1980d).

Irigaraia (Suhuskune, NB)

Harri beltza edo II(i)arrimuno gotorlekuaren oinetan dagoen baserri bat daukagu.



5. argazkia. Iribarnea baserria gotorlekuaren pezoien barne.

Ihapizta Ahaizekoa (Ortzaize, NB)

Jada aipatu *Ihapizta* izeneko gotorlekuaren magalean, (*h*)*iri* osagaidun bederatzi baserri badauzkagu: *Iriarte*, *Irigarai*, *Irigoién*, *Iriberrri*, *Irigoiz*, *Irikin* eta abar.

J. B. Orpustan hizkuntzalari eta historialariaren iritziz, *iha* = *iria* da zuberotarren eta baxenabartar batzuen ahoskeran. Eta nahiz gotorlekuaren magalean kokatuta egon, euskal toponimo eta domonimoen adierazpenen adituak ez die loturarik aurkitzen *iha* gotorlekuarekin, eta auzo edo ontasun esanahia lotzen die (Orpustan1977: 21-32).

1.2. -iri atzizkidunak

Iri bigarren osagai agertzen delarik, hizkuntzalariek beharko dute trenkatu izen, adberbio ala aditz adiera duen, guk «gotorleku» adiera emanen diogu.

a) Antzinaroko gotorlekuak

Gaztelari izeneko gotorlekuak

F. Gaudeul-ek Kristo aurreko gotorlekuetan, hiru erroldatu ditu:

- *Gaztelari*, «*Le Tuquet*» gaskoi homonimoaz ere ezaguna (Etxarri, Z).
- *Gaztalaria* (Zalgize-Donztebe, Z).
- *Gaztelaia* (Sohüta, Z)⁵.

Dirudienez, elkarri loturiko bi elementu aurkitzen ditugu toponimo horien osakuntzan. Alde batetik, *gaztela* edo *gaztelu*, latinezko *castellum*-etik datorrena, eta, bestetik, *iri*, *ii* lehen bokala ezkutaturik dagoelarik, *Gaztela(i)ri* eta *Gaztela(i)ria* izan zitezkeenak.

Gaztelaiak, alderantziz, *-r-* kontsonantea ezkutatzearekin jasan duke *Gaztelai(r)ia* bi *-i-* bokalen kontrakzioa.

Gaztela eta *iria* esanahi bereko bi elementu dauzkagu, Erdi Aroko toponimian oso ohituak (tautologia). *Gaztelarri*, harrizko gaztelu, hipotesia, F. Gaudeul-ek bazterten du hiru gotorlekuak lur hutsez osatuak baitaude, harrizko eraikuntzen arrastorik gabe. Bestalde, egungo *-r-* kontsonantearen ahoskera, zuberotarrez, gertu dago *-rr-* lapurtar ahoskeratik.

b) Goi Erdi Aroko gotorlekuak

Gaztelari gotorlekua (Gamarte, NB)

Harrizko hormaren hondarki batzuk geratzen dira *Gaztelari* mokorraren gailurrean (Gamarte, NB).

Euskoarkeologia erakundeak eginiko indusketek frogatu ahal izan dute Antso VI.ak, 1191 aldean, eraikiarazi gotorlekuaren aztarnak direla.

Rocabrun izenez ekarria da garai hartako dokumentuan (Normand, 1995).

«*Gaztelari*» ahoskatzen dute bertakoek, eta ez «*Gaztelarri*», orain, zoritxarrez, ahoskatua dagoen gisan erdaldunez.

c) Erdi Aroko gotorlekuak

Mendiria (Donamartiri, NB)

Galtzada zahar batek darama dorretxera.

Mulari (Mula(i)ri) (Ereiti, NB)

X.-XI. mendeetako gotorlekua (*castrum*), muinoxka baten gainean kokatua zen —*mul = mun?*—.

Agaramontarren lehen egoitza zen (*castrum*). Geroxeago finkatu ziren agaramontarrak Bidaxunen (Urrutibéhéty, 1982: 266).

5. J. P. Massie, M. Saule eta Gaudeul-ek aipatzen dituztelarik.

Uharte Hiri (Uhartehiri, NB)

Lehen aipamena XII. mendean aurkitzen da (1135-1136) (Goyeneche, 1979: 651), Oger jaunaren garaian. Lehen gotorlekuaren babespean sortu zen izen bereko udalerrria. Uharte Hiriko jauntxo gudariak pertsonaia historiko nortasun handikoak agertzen dira XI. mendetik XVIII. menderaino. Lehen gazteluaren oinarrietan finkatua izan zen oraingo gaztelua XVII. mendean.

Zubiri (Arraioz, N)

Erdi Aroko dorretxea, Baztan ibaiaren bazterrean finkatua dago, zubi zaharretik gertu.

Aiztiria (Irun, G)

Lapize auzoko baserri bat da. «Era un caserío fortificado» (El Iruñés, 1990) lekukotasunak defentsa-etxe bat izana dela salatzen du.

2. Iru aldagaiaz osaturikoak

Iru aurrizkiari hiru zenbakiaren adiera eman diote autore askok. Denbora berean *iriren* esanahi bera azpimarratzen da (Michelena, *Apellidos Vascos*). Humbolt-ek, alderantziz, «vega, valle» oraingo *ibar* adiera ematen dio.

Azalduko ditugun leku-izenez gotorleku adiera ematera ausartuko gara.

2.1. Iru- aurrizkidun gotorlekuak Antzinaro eta erromatarren garaikoak


Irubelakaskoa gotorleku itxurakoa

Iparraldeko Baztan ibaia, Errobi ibaiaren ezker aldeko beso bat daukagu (Bida-rrai, NB), Nafarroa Garaian jaiotzen dena. Mugatik gorantz bi besotan zatitzen da, Urrizate erreka ezkerrealdetik (Erratzu, N) eta Aritzakun erreka eskuinaldetik (Arizkun, N) Irubelakasko mendiak (970 m) bereiziz.

Hegoaldetik Meaka (Erratzu, N) eta Intzulegi (Arizkun, N) lepoek mugatzen dute esparrua.

Iparraldetik begiratuz, Irubelakaskoa mendi zut bat daukagu, aldapa bortitz batek daramana piramide itxura daukan gailurreraino (6. argazkia). Arkaitz mailakatu eta tarte belartsu batzuek —bela— inguratzen dute kaskoa, guneari gotorleku baten itxura emanez: iru-bela-kaskoa. Ohargarri da ere aldaparen lehen mailari deritzola *Kastilla* edo *Kastilloa*, bai eta *Xuriko* ere, txakur zaindari baten izen afektiboa. Geziak erakusten du lekua.

Euskal Herriko mendialdeko leku-izenetan toponimo figuratibo ugari kausitzen dugu, adibidez, Zaboze mendiak (Arbaila, Donaixti-Hozta, NB) badauka gailurrean harkaitz erraldoi bat, dorre itxurakoa, eta bertako artzainek esaten diote *Gaztelua*.



6. argazkia. Irubelakasko, Kastilloa/Xuriko.



7. argazkia. Irubelakasko, Kastilloa/Xuriko hurbiletik.

Berrogeita hamar bat baserri zeuden kokatuta Irubelakasko eta beste inguruko mendi-magaletan eta erreka hegian duela oraino hirurogei urte, eta herrixka bat sei etxerekin Aritzakun aldean (Perez de Villareal, 1979). Gaur egun hiru baserri baizik ez dira geratzen bi haranetan.



8. argazkia. Aritzakun urre-meategiaren hondarkiak.

Nahiz oso ezkutatua egon, gune horrek iragan histo-riko garrantzitsua ezagutu zuen duela bi mila urte inguru, urre-meategi erraldoi bat zegoelako mendiaren oinetan.

Pirinioetako urre-meatzeen lehen aipamena Plinio erromatar garaiko idazleari (K.o. 23-79) zor diogu (Plinio, Lib. XXXIII, kap. VI in K. Larrañaga, 1996). Anibalek (K.a. 247-113) akitaniarrei ustiarazi Baebelo lurpeko meatze erraldoia guziz aipatzen du, «egunero hirurehun libera zilar metalkiren emankortasuna zeukalako».

José de Moret Mendi (1616-1687) historialari eta Nafarroako kronikariaren iritziz, Aritzakun izan daiteke, Baebelo. Gure historialari nafarrak irakurketa makurra egin bide zuen, zeren Aritzakunen eta Urrizaten ez baitago lurpeko meatzerik eta are gutiago zilarrik. Baebelo izan daiteke gaurko arkeologoen iritziz, Arditurri (Oiartzun, G).

Alderantziz, milaka mendetan zehar, horma eta euriek eta uholdeek bertako mendiak arraskatuz ekarritako sedimentuek urre ugari garraiatu zuten Irubelakasko oinetaraino. Lekuko hor daude ehunka edo milaka ustiatzailek utzi hondarki meta inpresionagarriak (8. arg.).

Erromatarren garaira garamatza horrek gutxienez, ustiapen molde berezia zeukatelako, «*ruina muntion*» Pliniok deituta, lekuko hor daukagula, oraindik, Etxebertze baserriaren behealdeko lubaki erraldoia.

Erromatarren garaiaren aitzin, tarbeliar leinuek ere ustiatu zuketan urre-meategia Kanbo-ltsasuko (L) urre-meategi erraldoiarekin betan (Larrañaga, 1996: 236).

G. Vié-k (1979), Euskal Herriko eta Espainiako meatze askoren ingeniari ustiatzaileak, segurtatu zigun Aritzakungo urre-meategiaren izaera eta egin zituen hondarkien azterketek urrea jasaten dutela oraindik.

Erromatarren garaiaren aitzin, tarbeliarrek ere ustiatu zuketan urre-meategia, Kanbo-ltsasuko (L) urre-meategiarekin betan. Estrabonen (K.a. 585) esanetik (Larrañaga, 1996): «*Tarbeliarrak urre meatze emankorrenen jabe daude, eta lur azal-azaleko putzuetatik ateratzen dauzkate esku ahurraren zabaltasuneko negurriko pezak*».

Gaurko arkeologoen iritziz, geologia aldetik, tarbeliarren esparruan aurki zitezkeen leku bakarrenetakoetan, Kanbo-ltsasu eta Aritzakun-Urritzate daude. Dena den, egitura defentsibo antzeko leku asko badaude tontor kaskoaren magaletan eta oinetan, batzuek dudarik gabe gizonen eragina salatzen dutena (9. arg.).



9. argazkia. Irubelakasko, gizonaren lana nabarmenki ageri da.

Bururatzeko, aitortu behar dugu espekulazio hutsean geratzen garela urre-meategiaren jatorriaz, esparru osoan indusketarik inoiz egin ez delako.

Ilunzar gotorlekua non (Nabarniz, B)

Luchaire, J.C. Baroja eta Mitxelenak azaltzen digute, euskaran *r/l* usu aldizkatzen diren fonemak direla. Beraz, *ilun* eta *irun* adierazi bereko adierazletzat hartuko ditugu.

Aspalditik ezagutua, indusketetan emana izan zen, 1945 aldean, Taracena Aguirre eta Fernández de Avilés arkeologoen zuzendaritzapean (Aguirre eta Fernández de Avilés, 1945: 41-42). Hona Fernando de Hormaechearen deskribapena, 1846koa:

Goi-bizkar haietan aurkitzen ditugu gotorleku pezoikatu baten arrasto ezagunak, bide batez zeharkatua barrenetik eta pezoik batez inguratua kanpo aldetik. Konfigurazio eliptikoa dauka eta, dirudienez, geltoki izango zen kostalde eta

barnealdeko bidean. Mendi-bizkarrean zehar, egitura defentsiboak segitzen du Gaztiburuko «castroan» zehar, hego-mendebal buruan diren Batzarriko defentsalekuaren aztarnetaraino (in Balparda, 1924: 65-66)⁶.

Intxur herrixka gotortua

Euskal Herriko gotorleku zabalenetakoa (Tolosa, Albistur, G), indusketetan jarri zen 1957an (Barandiaran, 1961: 31-33) eta segitua dago oraindik ere (Peñalver eta Uribarri, 2002: 247). Material ugari argitaratua izan da, erakusten diguna Azken Brontze Arotik Bigarren Burdin Aroraino leinu batzuen herrixka bat finkaturik zegoela hor.

Intxur toponimoak interpretazio ugari sorrarazi arren, enigmatiko geratzen da oraindik.

Kontuan hartzekoa da, halere, behar den zuhurtasunez, J. M. de Barandiaranen oharpena lehen indusketaren ondorioz: «*Inchur (Intxur, segun la grafia vasca) es una montaña que se erige en el centro de Gipuzkoa. En boca de muchos habitantes del contorno el nombre de Inchur suena Inchurre, y en viejos papeles consultados por Sebastian de Inchausti es Irunchur*».

Erdi Aroko gotorlekuak

Irubea (Ainhoa, L)

Juan Perez de Bastan Amaiurgo errege-gazteluaren gobernadoreak (1208) eraikiarazi zuen Ainhoako bastidaren gainaldean bere gaztelua. *Irubea* etxea, karrika nagusian dago, gazteluaren behealdean (Elso, 1977: 136).

Irumendi (Milafranga, L)

Irumendi deritzo Errobi ibaiaren eskuin aldetik luzeran, 80 metroko goratasunean hedatzen den ordokiari. Ezponda zut batek mugatzen du ibai aldetik eta, lekuka, pezo baten aztarnak ezagun daude oraino ezpondaren hegian.

Bide zahar sakon batek darama ibai bazterretik ordoki erdirantz, *Irunberri* deituriko XVIII. mendeko etxeraino. Mendebaletik, *Poyloa* deitu muino artifizial batek bururatzen du ordokia. Etxe-eraikuntzaz estalia izanagatik azken urte honetan, muinoa zorupean hor dago oraindik.

Bi mintzaira desberdinen elementuak uztarturik osatu da Poyloa: *Poey* = *muino*, okzitanieraz; *loa* = *lekua*, euskaraz. Adibidez, *Zabaloa*, *Astarloa*. Egituraz badirudi Poyloa muino gainean dorretxe bat zegoela, zeinak zaintzen baitzuen ibai aldetik Milafrangatik Baionarantz doan bide guztiz garrantzitsua .

Irumendi (Hiriburu, L)⁷

Irumendi, Hiriburu udalerraren bizkar luzearen ekialdean finkatua bide zen.

Bi leku daude, bata bestetik oso gertu, izen berekoak edo bertsukoak. Urmendi (Urimendi?) izenez ezaguna da leku horietarik bat.

6. Jakes Casaubon-ek itzulia.

7. Hiriburu (St-Pierre-d'Irube) udalerraren izenak *Irumendi* eta *Ur(i)mendiren* antza izan dezake.

Segurtamenik eman gabe, hona Eugène Goyeneche historialariaren iritzia: «*Irumendi est peut-être l'ancienne Urmendi, forteresse construite par le Bayonnais Dominique de France, en 1316, sans doute pour se protéger de l'hostilité des Labourdins à l'égard des Bayonnais*» (Goyeneche, 1979). Gotorlekuaren zimenduak ezagun bide dira oraino (Desport, 1991: 108).

Irulegiko mokorra (Irulegi, NB)

Dirudienez, Irulegi herriaren izena mokorraren izenetik datorkio. Kapera bat eta hilerri zahar bat daude hor gaur egun (10. arg.).

Eugène Goyeneche historialariak segurtatzen zuen gaztelu bat bazegoela Irulegin 1354an (1979: 611). Jean Baptiste Orpustanek dio Irulegiren esanahia izan litekeela *Iralur hegi —iratze lur hegi—*. Halere beste esanahi bat ez du baztertzen, zeren *Irulegiri* kausitzen baitio antzekotasuna *Irun, Irunberri* eta antz bereko leku-izen batzuekin (1991: 131).



10. argazkia. Irulegiko mokor feudala (Jakes Casaubon).

Ez du baztertzen ere, *Irulegi* toponimoa mokorraren gaineko gaztelu edo dorre-txearen izenetik etortzea.

Irulegi (Lakidain, N)

«Castillo entre los valles de Aranguren y Elzagaondoa en término de Laquidain» (Ilarregui, 1869).

2007an Aranzadiko ikertzaileek historiaurreko gotorleku baten aztarnak aurkitu zituzten, *kastilloa* baino gorago eta gertu, mendi beraren gailurrean. Irulegi (Carrère Souto, 2008: 86-89), jatorriz, berdin izan zitekeen gailurreko gotorlekuaren izena.

Irulegi (Betelu, N)

Altadill-en hitzetan «*Fué una fortaleza navarra de condición señorial*» irakurtzen dugu (1977: 282-290), eta hiru tontor adiera eman zion, «*tres montículos*» haren hitzetan.

Irunberri (Donazarre, NB) -11. arg.-

Irunberri gazteluko jaunak Nafarroako erregearen gudari leial agertu dira beti. Haien lehen aipamena 1189. urtean aurkitzen dugu. Gaztelua, muino baten gainean kokatua da eta gotorleku-egitura dauka (Goyeneche, 1979: 639).



11. argazkia. Irunberri - Donazarre (NB)
(Wikipedia).

Irurita (Etxarri Aranatz, N)

«Fue uno de los tres castillos ...que el tratado de Guadalajara de 1207, se pusieron en fidelidad de Alfonso VIII» (Lacarra, 1972).

Irungaztelu (Jaurrieta, N)

Zaraitzuko ibarrean kokatua den *Irungaztelu* izeneko gotorlekua, Ignacio Sagredo-ren iritzi, baskoien garaikoa da.

Irurita (Irurita, Baztan, N)

